

JON BILBAO - *Eusko Bibliographia*. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Cuerpo C., VIII tomotan osatzen da. Editorial Auñamendi, Estornés Lasa Hnos. 20×27 zm., tomo bakoitzak 600-dik gora orrialde. Donostia, 1970-1978.

Euskal-Herrian, bertako Unibertsitate, mintegi eta erakunderik ezaren ondorioz, kultur gaietan zerbaiek jakin nahirik edo zerbaiek landu nahirik abiatu ginen guziori gertatu zaigu eginalak egin ondorean, inoiz landutako alorrak uste gabean berriz lantzen aritzea eta indarrok hutsean gelditzea. Hasiera bateko ekintzetan maizetik gertatu zaigu alperrikako lanak egitea, lehendik eginak zaudenez. Gure mundua hain handia ez delarik ere holako gauzak gertatu zaizkigu.

Hori da gerraondoko lehen urteetan Jon Bilbaori gertatu zitzaiona ere. Eta, egiten ari zena egina zegoela ohartzen zen neurrian jabetu zen euskal gaien bibliografia handi eta zabal baten beharrez. Kontuan hartu zituen Allende Salazar, J. Vinson eta G. Sorarrainen bibliografia lanak eta hauek oinarritzat harturik eta geroztik argitaratutako lan pila bat bildurik Lapurdiko Sarara jo zuen, bizpahiru urtetan *Eusko Bibliographia* zabal eta zehatz bat burutzeko asmoz. Gaiak sakonduala urteak luzatu ziren eta, ondorioz, ekinaldi batean egitekoak bere etenaldiak ezagutu zituzenez gura baino atzerapen gehiago izan zuen. Lanaren egitura bera ere ez zitzaion iduritu aurreko haiek bezala eratzea liburu bakoitzari fitxa soil bat idekiz. Bestalde, aldizkarietako lanak ere bildu nahi zituen; behinik-pehin kultur aldizkarietakoak. Lan guziok egileen deitura ordenaz emateaz gainera, gaietan ez ezik tokian tokiko ordenamenduz ere agertzea iduritu zitzaion, horrela egile eta gaiez aparte hiri edo herri bakoitzak bere bereizketa izan zezan, edozein ikertzaile edo jakin nahidunari aukera guziak eskainduz. Era hortara, urteren luzapenez, bizpahiruan burutzeko zenak hogetahamar urteko iraupena ezagutu du.

Bitartean ordenadore elektronikoak agertu ziren eta hoiengandik lantzeko aukera hobeak ezagutu ditu lana inprimategiratzean.

Esan beharra dago, historiari zor diogunez, duela hamaseiren bat urte, lana inprimategiratzeak aukera eskaini zitzaiola Instituto de Cultura Hispánica delakoaren babespean, baina zentsurak Sabino Arana eta bere lan guziak kentzera behartzen zuela obra argitaratuko bazen. Orduan, Jon Bilbaok, arrazoi handiz, nahiago

izan zuen denbora hobeeri itxaro. Bere lana ideologia guzien gaitetik zegoan zerbait bai zen.

Azkenean, prentsaren lege berriak zirrikitu bat ideki zion, aldez aurretiko zentsura kentzen zuelarik eta lan bat publikatu ondorean bahitutakoaren alde legezko eskabidea egiteko eskubieak eman. Hala ere harrisgugarria zen, baina Auñamendi Argitaldaria prestatu zen argitaratze lana aurrera eramateaz eta 1970ean plazaratu zuen *Eusko Bibliographia*-ren lehen tomoa eta igazko urtearen bukaeran zortzigarrena; aurten zabaldu dena.

Orain, euskal gaiez zerbaiten diharduenarentzat edo nahiz kuriosidade hutsez zerbaik jakin nahi duenarentzat hor dugu prest, eta seriozki euskal kulturaren zerbait egin nahi duten guziei beharrezkoa zaie obra honen orrialdeetara iturri bila edo zehaztasun bila joatea.

Inprimategiak sortzetik hasi eta 1960. urtera hartekoa biltzen du eta zortzigarren tomo berean hasten du 1961etik 1975erako eraskina. Hondorengo tomoetan 1975. urtera artekoa osatuko duena. Geroan, bost urtetik bost urtera osatuaz jarraitzeko asmoa du.

Otoi: Bibliografia hau behar bezala erabili nahi duenak, ahalden probetxurik handiena ateratzeko, beharrezko du lehen tomoak daroan hitzaurrea irakurtzea, nola maniatu behar duenaren ohar eta adierazpenak dituelako.

Egilea, Jon Bilbao, bere lan gotor honegatik guzion errespetua irabazi duen gizona da. Eta, bere ta bere lan honen balioaz gehien baliatu dena Nevadako Reno Unibertsitatea izan da, Euskalerriko Ikaskuntzen Bibliografia saila sortuaz. Sail honek daroa han bertan jarri duten euskal gaien biblioteca eta agirien gordailu ardura eta euskal jakintzen programaketena.

1979. urtean, Durangon Gerediaga Elkartek eraturik egiten den disko eta liburu azokan, obra burutua agertu denez, urtean zehar euskal gaietaz argitaratu den liburutik onenaren saria eman du. Gure ustez, inork merezimendurik izatekotan, obra honek ondo merezia zuen holako sari bat.

* * *